

Euskal Autonomi Elkarteko egoera soziolinguistikoaren azalpen orokorra

Xabier Aizpurua

Artikulu hau Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruz eztabaidatu ahal izateko prestatzen ari den oinarriko dokumentuaren laburpen bat da. Laburpena izateak berekin dakartzan mugak direla eta artikulu honetatik kanpo utzi dira oinarriko dokumentu horretako hainbat atal, hala nola, euskara eta hizkuntza politikari buruzko gogoeta, hizkuntza ukipenezko egoerak ikertzeko soziolinguistikazko eredu teoriko desberdinei buruzko bilketa eta azterketa, euskararen korpusaren lanketari buruzko azalpena eta euskararen gizarte erabilera eremuen bilakaera.

Azken finean, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Euskal Herri osoan 1991an egin zuen soziolinguistikazko inkestaren emaitza nagusien inguruan prestatu da Euskal Autonomi Elkarteko egoera soziolinguistikoaren azalpen orokor hau.

Soziolinguistikazko inkesta 1991ko otsailean egin zen, besteak beste, euskararen nahiz gazteleraren ezagupena, erabilera eta horiei buruzko jarrerak aztertzeko. *Soziolinguistikazko mapa (1986.urteko erroldaren arabera) EAEko azterketa demolinguistikoa*) izeneko liburuan egindako azterketa-proposamenak betez egin da soziolinguistikazko inkesta hau. Esan behar, bestalde, galdeketa behar bezala prestatzeko zenbait soziolinguista adituri beren lankidetzak eskatu zitzaizela, horien artean oso bereziki J. Fishman, A. Tabouret Keller eta R. Bourhis aipa daitezkeelarik, galdesortaren azken proposamena Euskararen Aholku Batzordeko Demolinguistika batzordeak egin zuelarik.

Soziolinguistikazko inkesta hau burutzeko 5.300 elkarrizketa egin ziren Euskal Herri osoan: 2.800 EAEan, 1.200 Iparraldean eta 1.300 Nafarroan. Nafarroako lanari dagokionez, bereziki eskertu behar da Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak emandako laguntza osoa.

Iparraldeko ikerketa, berriz, Akitaniak eta Euskadik sinatutako lankidetzak hitzarmenaren lan egitarauetan txertatu zen lanaren zuzendaritzaz Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Euskal Kulturaren Erakundea arduratu zirelarik.

Ondoko orrietan EAEaz arituko garenez esan dezagun EAEko 16 urte baino gehiagoko biztanlegoa oinarritzat hartuta, guztira 2.800 elkarrizketa egin zirela (1.800 euskaldunei eta 1.000 erdaldunei). Gero, jakina, emaitzak ponderatu egin ziren 1986ko erroldaren arabera euskaldunek eta erdaldunek zituzten egiazko tamainen arabera. Lagin osoa hartuta emaitzen huts arriskua + %3koa dela estimatzen da, %95eko ziurtasun mailarako eta $p = q = 50$ proportzio aukeretarako.

Elkarrizketak egiteaz ondoko talde edo enpresak arduratu dira: Iparraldean SIADECO, Nafarroan NEURRIAK eta EAEan COS eta NEURRIAK.

Aurrerago jo baino lehen, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet C. Echevarria jaunari datuen trataerarako emandako laguntza eskergagaitik, P. Sagardoy jaunari prestatu dituen ehundaka grafiko eta mapengatik eta Iñaki Mz. de Luna jaunari, inkesta burutzeko behin eta berriro eskainitako laguntzagatik.

Begibistakoa da hizkuntz plangintzazko edozein egitamuri ekin aurretik beharrezkoa ezezik ezinbestekoa dela egungo hizkuntza egoeraren berri zehatza izatea. Baina hori esatea errazagoa da egitea baino hizkuntza egoeraren berri zehatza izateak, gaur eta hemen, besteak beste, zera bait dakar berekin:

.euskara eta gaztelaniaren egoera isladatzen duten datu objetiboen azterketa egitea nola euskararen eta gaztelaniaren statusari dagokionean (euskara eta gaztelaniaren ezagutza eta erabileraren banaketa geografiko eta demografikoa, erabilera-eremuak: administrazioa, irakaskuntza, komunikabideak, unibertsitatea, argitalpenak, errotulazio eta seinalizazio publikoa,...) hala hizkuntzen corpusari dagokionean.

.euskal gizartea osatzen duten gizatalde eta pertsonen euskararen eta gaztelaniaren egoerari buruz duten perzeptzioa, interesa eta jarrera nolakoa den aztertzea.

I. Euskara eta gaztelaniaren egungo egoeraren azterketa objetiboa:

Horretarako, euskara eta gaztelaniaren ezagutza eta erabileraren banaketa geografiko eta demografikoaren berri emango da bi atal nagusi bereziz:

1. EAEko biztanleriaren sailkapena hizkuntza gaitasunaren arabera.
2. Euskaldunen hizkuntza erabilera familian, lagunartean eta lanean.

I.1.- EAEko biztanleriaren sailkapena Hizkuntza gaitasunaren arabera:

Hizkuntza gaitasunaren azterketa egiteko bi datu iturri nagusi dugu: errolda (1981, 1986, 1991) eta soziolinguistikazko inkesta (1991).

Erroldako datuei buruz ez dugu aipamen berezirik egingo 1989an Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratu zuen *Soziolinguistikazko Mapan* luze-zabal aztertu bait ziren ama-hizkuntza nahiz hizkuntza gaitasunari buruz 1986ko erroldak eskainitako datu guztiak eta baita datu horietan oinarritutako indize eta tipologia berriak. Bestalde, 1991ko zentsuaren datuak eskuratu bezain laister hiru erroldetako datuen arteko konparaketa egiteko asmoa du Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak.

Dena den 1986ko erroldak eskainitako datuak osatzeko 1991an egin zen soziolinguistikazko inkestak informazio aberatsa du eta honen iruzkina egingo da orain.

EAEan, nagusi dira erdaldun elebakarrak (%67); elebidun funtzionalak (euskaraz eta gaztelaniaz ongi hitzegiteko gai direnak) lautik bat (%23) dira eta elebidun hartzaileak (euskaraz zertxobait hitzegiten dakitenak edo zertxobait hitzegin ez arren euskaraz ongi ulertu edo irakurtzeko gai direnak) hamarretik bat (%9) dira; apenas dago euskaldun elebakarrik (%1).

Elebidun funtzionalak, bestalde, hiru azpitaldetan sailka daitezke, euskaraz hitzegiteko duten gaitasun eta zailtasunaren arabera, azpitalde horietako bakoitzean ia herena jar daitekeelarik:

.euskal elebidun funtzionalak edo, orohar, euskaraz gaztelaniaz baino errazago hitzegiten dutenak (%35),

.elebidun funtzional orekatuak edo, orohar, euskaraz nahiz gaztelaniaz berdintsu hitzegiten dutenak (%26),

.erdal elebidun funtzionalak edo, orohar, gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitzegiten dutenak (%39).

Aurrerantzean, euskaldun elebakarrak nahiz elebidun funtzionalak euskalduntzat hartuko dira (%24); elebidun hartzaileak, berriz, erdaldun elebakarrekin batera erdaldunen (%76) multzoan sartu dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz hitzegiteko gaitasunaren arabera egin dira goiko sei taldeak. Halere, irakurri eta idazteko gaitasunari dagokionean, esan behar da euskaldunen %73ak ongi edo nahikoa ongi irakurtzen badaki ere %60ra jaisten dela ongi edo nahikoa ongi idazteko gai direnen kopurua.

* Bestalde, erdaldun elebakarren kopurua hain altua izanik eta hamar euskaldunetik lau euskaraz idazteko gai ez dela ikusirik, aipagarria da biztanleriaren gehiengoak (%64) - euskaldunen ia erdiak (%47) eta erdaldunen lautik ia hiruk (%70)- ez duela inoiz euskaraz ikasteko ahaleginik egin.

Euskaraz ikasteko ahaleginik egin dutenek euskaraz ikasteko arrazoi nagusitzat "gure hizkuntza delako" eman dute gehienek (%39) bainan "lanerako behar dudalako" (%15) eta "gogoia nuelako/hobbya dudalako" (%14) ere aipatu dira. Euskaraz ikasten inoiz saiatu ez direnek, berriz, ikasten ez saiatzeko arrazoi nagusitzat "ez dut astirik" (%27) eta "inoiz ere pentsatu ez dudalako" (%25) eman dituzte gehienek bainan, urrutixeko bada ere, "oso zaila delako" (%10) eta "zaharregia naizelako" (%10) ere hortxe azaldu dira.

* Euskaraz hitzegiteko gaitasuna norberaren ama-hizkuntzaren edota, hobeto esan, lehen hizkuntzaren baitan dago ia-ia erabat. Hain zuzen ere:

.euskaldunen lehen hizkuntza euskara -bakarrik (%79) edo erdararekin batera (%7)- da eta erdaldunena erdara (%93). Honenbestez, ez dago ez gaztelaniatik euskararako ez eta euskaratik gaztelaniarako hizkuntza aldaketa handiegirik: lehen hizkuntza erdara izanik euskaraz ongi hitzegiteko gai direnak -euskaldunberriak, alegia- populazioaren %3 dira; aitzitik, lehen hizkuntza euskara izanik euskaraz ongi hitzegiteko gaitasuna galdu dutenak %2 dira.

.euskaraz hitzegiteko erraztasuna lehen hizkuntzari lotua dago ia erabat: euskal elebidun funtzional guztien (%98) lehen hizkuntza euskara den bitartean erdal elebidun funtzionalen hirutik batek (%29) erdara du lehen hizkuntzat eta euskara eta gaztelania, biak batera, %14ak. Euskal elebidun funtzionalen artean euskaldunberriak

ez dago baina euskaldunberriak dira elebidun funtzional orekatuen hamarretik bat (%10) eta erdal elebidun funtzionalen ia herena (%29).

.azkenik, elebidun hartzaileen artean nagusi dira lehen hizkuntza erdara izanik (%81) euskaraz zertxobait hitzegiteko gai direnak (%67); era guztietara ezin izkuta daiteke ia bostetik batek (%18) lehen hizkuntza euskara -bakarrik (%13) edo erdararekin batera (%5)- izan arren euskaraz ongi hitzegiteko gaitasuna galdu duela.

* Adinari dagokionean bost talde berezi dira datuak hobeto azaltzeko:

1. 65 urtetik gorakoak: 1926a baino lehen jaiotakoak (biztanleriaren %12)

2. 50-64 urte bitartekoak: 1925-1941 bitartean jaiotakoak (" %24).

3. 35-49 " " : 1942-1956 " " (" %23).

4. 25-35 " " : 1957-1966 " " (" %20).

5. 16-24 " " : 1967-1975 " " (" %21).

.Erdara, lehen hizkuntzan, eta erdaldun elebakarrak, hizkuntza gaitasunari dagokionean, nagusi dira adin-talde guztietan.

.Hizkuntza gaitasunari dagokionean, adin-talderik zaharretik hasiz gero euskaldunen kopurua gutxituz doa 49tik 35 urte bitarteko adin-taldera iritsi arte. Adin-talde hori da euskararen galeraren inflesio puntua: 1956az geroztik jaiotakoen artean euskaraz hitzegiten dakitenak, poliki-poliki bada ere, etengabe gora doaz. Bestalde, grafikoan ongi ikus daitekeenez:

-euskaldun elebakarrik ez dago 35 urtetik behera,

-35 urtetik behera, elebidun funtzionalak gorantz doaz piskanaka (bizpauru puntuko igoera adin-talde bakoitzean),

-elebidun hartzaileak dira igoerarik handienak dituztenak (64 urtetik gorakoen %4tik 16-24 adin-taldeko %21era), adin-talderik gazteenetan, erdaldun elebakarrak beheruntz doazelarik, era nabarmenean.

.Lehen hizkuntzari buruz ezin esan daiteke hizkuntza gaitasunari buruz esandako gauza bera: euskararen galera geratu bada ere oraindik ez da hasi euskararen aldeko igoerarik. Bestalde, azken urteotan gertatzen ari diren bi fenomeno berri dira:

-lehen hizkuntzatza euskara ala gaztelania izateko ordez euskara eta gaztelania izatea - adin talderik gazteenetan bikoiztu egin dira aukera honen portzentaiak.

-adin talderik zaharretan, lehen hizkuntza gisa, gaztelania ez ziren beste erdarak (gailegoa eta abar) ageri badira ere adin talderik gazteenetan ia desagertzeaz daude eta, itxuraz, gaztelaniaren mesedetan gainera.

* Geografiaren ikuspegitik esan behar da egoera ez dela bat eta bera herrialde batetik bestera. Aitzitik, punta batean euskaldunak eta bestean erdaldunak nagusi diren herriak jarritz, lau guneko edo zona oso desberdin berezi daitezke. Baina ondoko grafikoak ondo erakusten du guneko horietako bakoitzean bizi den jende kopurua oso desberdina dela:

.EAEko biztanleriaren %59a euskaldunak %20 baino gutxiago diren herritan bizi da. Bertan erdaldun elebakarrak nagusi dira (%88) eta elebidun funtzionalak (%7) nahiz elebidun hartzaileak (%5) parean daude.

.Biztanleria osoaren %19a euskaldunak %20tik 44ra bitartean diren herritan bizi da; zona honetan ere nagusi dira erdaldun elebakarrak (%63) nahiz eta bertan elebidun funtzionalak laurdena pasatxo (%29) izan eta elebidun hartzaileak hamarretik bat (%8).

.Euskaldunak nagusi dira ondoko beste bi zonetan baina bertan, biak batera hartu arren, EAEko biztanleria guztiaren laurdena baino gutxiago bizi da (%21). Euskaldunak %45etik %79ra iristen diren herrietan elebidun funtzionalak dira gehienak (%56) eta erdaldun elebakarrak herena (%32).

.Azkenik, euskaldunak guztiz nagusi (%90) diren herrietan EAEko biztanleria guztiaren %5 baizik ez da bizi.

* Jatorri etnokulturalaren ikuspegitik, lau talde berezi ditugu: bertakoa (biztanleriaren %47), bertakoa bainan aita edo ama etorkina duena (%8), bertakoa bainan aita eta ama etorkinak dituenak (%13) eta etorkina (%32).

.Lau taldeetan nagusi dira erdaldun elebakarrak. Hala ere, ezin bil daitezke multzo berean bertakoa eta beste hiru taldeak: azken hiru taldeetan erdaldunak hamarretik zortzi baino gehiago diren bitartean -etorkinen artean ia denak (%99)- bertakoen artean nahikoa parean daude euskaldunen (%47) eta erdaldunen (%53) portzentaiak.

.Elebidun hartzaileen portzentairik altuenak aita eta ama, edo bietako bat behintzat, etorkina dutenengan ageri dira (%14).

.Euskaldunen artean hamarretik bederatzi (%92) bertakoa izan arren ezin pentsa daiteke, inolaz ere, erdaldun guztiak etorkinak direnik, gehienak (%42) etorkinak izan arren herena (%33) bertakoa bait da.

* Kultur identifikazioaren ikuspegitik, inkestuari bere burua euskaldun ala espainol jotzen duen galdetu zaio erantzuteko bost aukera emanaz: "espainol" (biztanleria osoaren %16), "espainol euskaldun baino gehiago" (%4), "espainol bezain euskaldun" (%28), "euskaldun, espainol baino gehiago" (%11) eta "euskaldun" (%35).

.Beren burua lehen hiru taldeetako batekoa jotzen duten ia guztiak (%90etik gora) erdaldun elebakarrak dira.

."Euskaldun, espainol baino gehiago" kontsideratzen direnen artean gehienak (%70) erdaldun elebakarrak dira bainan horien artean badira elebidun funtzionalak (%14) eta baita elebidun hartzaileak ere (%16).

."Euskaldun" direla diotenen artean, gehienak elebidun funtzionalak dira (%59) eta ia herena erdaldun elebakarra (%30).

.Honenbestez, euskaldunen artean ia guztiek (%86) "euskaldun" direla dioten bitartean erdaldunak barreiatuak daude aukera desberdinetan: %36a "euskaldun bezain espainol" kontsideratzen da; %21a "espainol" eta %19a "euskaldun".

Euskal Autonomi Elkarteko

egoera soziolinguistikoaren

azalpen orokorra

Xabier Aizpurua

I.2. Euskaldunen hizkuntza erabilera familian, lagunartean eta lanean

Hizkuntza erabileraren ikuspegitik egin diren azterketek ondoko bi kezka edo galderak erantzun nahi dituzte:

. Zenbateraino erabiltzen da euskara eguneroko ihardunean?

. Zeintzu dira euskara erabiltzean gehien eragiten duten aldagai edo faktoreak?

A. Zenbateraino erabiltzen da euskara eguneroko ihardunean?

Inkestuari, besteak beste, honako hiru galdera hauek egin zitzaizkion:

-"Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zure ohizko ihardunean zure etxean, familiarekin, bazkal edo afal orduetan?"

-"Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue lagunen artean zerbait hartzera ateratzean?"

-"Egunero hitz egiten duzuen lankideen artean, zein hizkuntzatan hitz egiten duzue zuen artean?"

Erantzuteko bost aukera eman zitzaizkien: "beti erdaraz", "erdaraz euskaraz baino gehiago", "erdaraz euskaraz hainbat", "euskaraz erdaraz baino gehiago" eta "beti euskaraz".

Hauexek dira emaitza nagusiak:

* Oro har, "beti euskaraz" hitz egiten dute familian euskaldunen ia erdiek (%46), lagunartean herenak (%32) eta lanean laurdenak (%26). Beraz, familiatik urrundu ahala gutxitu egiten da "beti euskaraz" hitz egiten dutenen proportzioa.

Datuak ematerakoan, oro har, esan dugu zeren eta alde handiak bait daude, besteak beste, norberaren harreman sarea euskaldunagoa edo erdaldunagoa izatearen baitan, gune soziolinguistiko batetik bestera, adin talde desberdinen edota euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko erraztasunaren arabera.

Hain zuzen ere, adibide bat ematearren, familian, lagunartean nahiz lankideen artean, denek ala ia denek euskaraz dakitenean, "beti euskaraz" hitz egiten dutenen proportzioak goikoak baino dexentez handiagoak dira: familian (%63), lagunartean (%63) eta lanean (%69). Kuriosoa da harreman sarea guztiz euskalduna denean apenas dagoela diferentziarik famili, lagunarte nahiz laneko hizkuntza erabileraren artean.

* Argi eta garbi ikus daiteke euskaraz jakin eta euskaraz hitz egitearen artean dagoen aldea.

* Ezin izkuta daiteke, bestalde, hamar euskaldunetik zazpi baizik ez direla bere inguruan (ia) denak euskaldunak direnean "beti euskaraz" egiten dutenak.

Azkenik, esan behar da hiru esparru edo erabilera eremuak (familia, lagunartea eta lana) lehenik, bakoitza bere aldetik hartuta ikertu direla. Gero hizkuntza erabileraren tipologia desberdinak egin dira, besteak beste, famili, lagunarte eta laneko hizkuntza erabileraren tipologia eta famili eta lagunarteko hizkuntza erabileraren tipologia. Famili eta lagunarteko hizkuntza erabilera tipologia sei egoera desberdin berezi dira:

* Familian eta lagunartean ia beti euskaraz egiten dutenak: euskaldunen (beraz, populazio osoaren laurdenaren) herena (%33) dago hemen.

* Familian eta lagunartean nagusiki euskaraz egiten dutenak: euskaldunen %15a dira hauek.

* Familian nagusiki euskaraz eta lagunartean nagusiki erdaraz egiten dutenak: euskaldunen %10a.

* Lagunartean nagusiki euskaraz eta familian nagusiki erdaraz egiten dutenak: euskaldunen %4a.

* Familian eta lagunartean nagusiki erdaraz egiten dutenak: euskaldunen %22a dira hauek.

* Familian eta lagunartean ia beti erdaraz egiten dutenak: euskaldunen %15a.

B. Zeintzu dira euskara erabiltzean gehien eragiten duten aldagai edo faktoreak?

Gizarte-gertakizun edo arazoak ezin dira inoiz ehuneko ehunean adierazi. Aitzitik, beti geratzen da adierazi gabeko zatirik. Ikerketa honetan erabili diren aldagaiekin famili, lagunarte eta laneko hizkuntz (euskararen) erabileraren azalpen maila oso altua edo nahiko altua izatea lortu da: % 61 familiako hizkuntz (euskararen) erabileran, % 69 lagunartekoan eta % 74 lanekoan.

Hurrengo orrian laburbildu dira erabilera eremu bakoitzeko hizkuntz (euskararen) erabileran zeintzu aldagaik eragiten duten eta zein neurritan. Ohartarazi behar da laukitxo bakoitzean agertzen den kontzeptuak ez duela aldagai bakarria adierazten kontzeptu horren pean bil daitekeen aldagai multzo bat baizik. Adibidez, hirugarren laukitxoan "sekzioko euskaldunen proportzioa" aipatzean bertan bildu dira aldagai horretaz gain baita sekzioko gal eta erakar indarrak ere.

Oharrak:

1) Lehen portzentaiak (negrilaz azaltzen denak) adierazten du, multzo bakoitza bakarka hartuz, multzo horretako aldagaiak zenbaterainoko eragina duten euskararen erabileran. Adibidez, familiar euskara erabiltzean eraginik handiena (% 53) senideek euskaraz jakiteak du.

2) Bigarren portzentaiak (parentesi artean azaltzen denak) azalpen maila osoa -famiako hizkuntz erabileraren %61a beraz- aldagai multzo desberdinetan nola banatzen den erakusten du; horretarako, alde zurretik, dagokion faktore-analisisa eginez aldagai-multzo desberdinetan errepikatzen den informazioa baztertu da.

Adibidez, famiako hizkuntz erabileraren %61eko azalpen maila honela honela banatzen da aldagai-multzo desberdinetan: senideek euskaraz jakiteak du eraginik handiena (% 21); ondoren euskaraz ala gaztelaniaz hitzegiteko erraztasunak (% 18); gero sekzioko euskaldunen proportzioak edo, beste era batera esateko, zona soziolinguistikoak (% 14); euskara sustatzearen aldeko jarrera izateak"(%4); adinak (% 1) eta euskarazko irrati edo telebistaren emanaldiak entzun edo ikusteak (% 1).

Azterketaren arabera faktore sozioestrukturalak (norberaren hizkuntza harremanen sarea eta zona soziolinguistikoak) eta norberaren hizkuntza gaitasuna, are gehiago, euskaraz hitz egiteko erraztasuna dira euskararen erabileran gehien eragiten duten arrazoiak.

Esan behar da arrazoi horiek direla baita ere fami eta lagunarteko hizkuntz erabileraren tipologian eraginik handiena dutenak.

a.- Norberaren harreman sarea euskalduna izatea: zenbat eta harreman sarea euskaldunagoa izan, orduan eta altuagoa da euskararen erabilera: familia eta lagunartean (ia) denek euskaraz dakitenean ia beti euskaraz hitz egiten dutenak %59 dira eta nagusiki euskaraz egiten dutenak %19 baina oso kontuan hartzekoa da euskaraz dakitenak (ia) denak ez direnean, nahiz eta erdiek baino gehiagok jakin, beti euskaraz hitz egitendutenean portzentaia %6ra arte jaisten dela nagusiki euskaraz egiten dutenak %26 direlarik.

b.- Euskaraz gaztelaniaz bezain erraz ala errazago hitz egitea: euskaraz hitz egiteko ez da aski euskaraz ongi ala nahikoa ongi hitz egitea; beharrezkoa da, baita ere, euskaraz erdaraz baino errazago hitz egitea edota, gutxien gutxienez, erdaraz bezain erraz hitz egitea. Erdal elebidun funtzionalak, erabileraren ikuspegitik behintzat, (ia) guztiz erdaldunak dira.

c.- Zona soziolinguistiko euskalduna izatea: alde handiak daude zona soziolinguistiko batetik besterako euskararen erabileran. Hain zuzen ere, euskaldunen kontzentrazioa zenbat eta txikiagoa izan are eta txikiagoa da euskararen erabilera. Bestalde, aurrerago hobeto adieraziko bada ere, azpimarratu behar da aldagai hau eta "a" atalean azaldu den norberaren harreman sarea hertsiki loturik daudela.

d.- Adina: lehenago esan da, 50 urtetik behera, adin talderik zaharretik gazteenara poliki-poliki gehietzen ari dela elebidun funtzionalen kopurua. Euskararen erabileran ordea ez da oraindik horrelakorik gertatu. Aitizitik, gazteenak dira euskaraz gutxien hitz egiten dutenak.

Norberaren harreman sareari buruz hitz bi

Euskaldunen hizkuntza erabileran norberaren hizkuntza harremanen sarearen eragina nolakoa den ikusirik ezinbestekoa da harreman sareari buruz hitz bi egitea:

* Biztanleria osoa kontuan hartuz gero famili, lagunarte nahiz laneko harreman sarean normalena euskaraz inork ala ia inork ez jakitea da.

Baina euskaldunak bakarrik hartuz gero, juxtu-juxtu, aurkakoa gertatzen da normalena denek ala ia denek euskaraz jakitea bait da. Oro har, familiakoa da harreman sarerik euskaldunena, familiarik lagunartera edo lanera urrundu ahala harreman sarea erdaldundu egiten da.

* Harreman sarea eta gune soziolinguistikoa elkarren artean oso lotuak daude. Hobeto esan, gune soziolinguistikoak baldintzatzen du harreman sarea: gune soziolinguistikoa zenbat eta erdaldunagoa izan orduan eta erdaldunagoa da norberaren harreman sarea dela familian, dela lagunartean nahiz lanean.

* Adin taldea zenbat eta gazteago izan familiako harreman sarea orduan eta erdaldunagoa da. Are nabarmenagoa da hau euskaldunak bakarrik hartzen baditugu.

* Alabaina lagunartean ez da horrelakorik gertatzen 16-24 adintaldeko harreman sarea 25-34 adintaldekoa baino euskaldunagoa bait da.

Familiako hizkuntza erabilerari buruzko azken aipamenak

* Oro har, euskaldunen artean ez dira erdira iristen (%46) etxean bazkal-afal orduetan beti euskaraz hitz egiten dutenak. Baina etxekoen artean, denek edo ia denek euskaraz dakiten familiak bakarrik hartuz gero beti euskaraz hitz egiten dutenak dexente gehiago dira (%63) eta adin taldekako emaitzek erakusten dutenez etxeko euskararen erabileran gertatzen ari zen galera adin talderik gazteenean eten egin den arren, oraingoz, ezin esan daiteke euskararen erabilera gehitzen ari denik.

* Solaskidez solaskide, aipatzekoa da solaskidea (aita, ama, senarra edo emaztea, seme-alabak, ...) euskalduna denean gehiago hitz egiten dela "beti euskaraz" seme-alabekin (%72) edota gurasoekin (aitarekin %72 eta amarekin %71) senar edo emaztearekin (%65) baino.

* Inkestaturen seme-alabek beraien artean nola hitz egiten duten ere aztertu da:

- Batz-besteetan, hau da, seme-alabek euskaraz dakiten ala ez kontuan hartu gabe, beraien artean beti euskaraz hitz egiten duten seme-alabak %10 baino ez dira; euskaraz erdaraz baino gehiago egiten dutenak %4 eta euskaraz erdaraz hainbat %6. Ia lautik hiruk (%71) beti erdaraz hitz egiten dute beraien artean.

- Bainan seme-alaba guztiak kontuan hartzeko ordeztu seme-alaba guztiak euskaraz dakiten familiak bakarrik hartzen baditugu euskararen erabilerak gora egiten du: beti euskaraz hitz egiten du herenak (%34), euskaraz erdaraz baino gehiago %15ak, euskaraz erdaraz hainbat %17ak, beti erdaraz egiten dutenak ia bostetik bat (%18) direlarik.

- Seme-alaba guztiek euskaraz jakiteaz gain aitak eta amak ere euskaraz dakiten kasuak bakarrik kontuan hartuz gero euskararen erabilera oraindik ere altuagoa da: beti euskaraz hitz egiten du erdiak baino gehiagok (%54), euskaraz erdaraz baino gehiago %16ak eta beste hainbestek euskaraz erdaraz hainbat. Beti erdaraz ari direnak %3 baizik ez dira.

II. Euskara eta gaztelaniaren egungo egoerari buruzko jarrerak

Euskara eta gaztelaniaren egoera orokorrari buruzko perzepzioa, interesa, jarrera eta orain arte jarraitutako politikari buruzko iritzia nolakoa den azalduko da orain hiru azpiataletan:

- euskararen egoerari buruzko perzepzioa
- euskarari buruzko interes eta jarrera
- jarraitutako politikari buruzko iritzia

II.1. Euskararen egoerari buruzko perzepzioa

a. Egungo egoera

. Biztanleriaren laurdenak (%24) ez daki EAEan zenbat diren euskaraz hitzegiten dakitenak.

. Bestalde, egungo egoerari buruzko perzepzioa oso okerra da: nagusi dira EAEan euskara dakitenak biztanleriaren %40a baino gehiago direla uste dutenak (%38) euskaldunen kopurua %20tik %40rako tartean dagoela diotenak herena (%32) direlarik. EAEan euskaraz dakitenak %10a baino gutxiago direla uste dutenak oso gutxi dira (%6).

. Esan da egoera zer nolakoa den ez dakitenak, batzbestean, %24 direla bainan 64 urtetik gorakoen artean portzentaia hori %37raino iristen den bitartean 16tik 24 urtera arteko adintaldean %13ra arte jaisten da. Gainera gazteenen artean erdiek baino gehiagok (%56) uste dute euskaraz dakitenak biztanleria osoaren %40 baino gehiago direla.

b. Iraganaren ikuspegia

Gehiengoak (%83) uste du jendeak, gaurregun, duela hamar urte baino gehiago hitzegiten duela euskaraz: nagusi dira (%45) "jendeak zertxobait gehiago hitzegiten duela" uste dutenak baina "jendeak askoz gehiago hitzegiten duela" diotenak ere asko dira (%38).

Gune soziolinguistikorik erdaldunenetako biztanleak dira erabilpen mailan igoyerarik handiena somatu dutenak. Adibidez, Araban euskaraz gaurregun gehiago hitzegiten dela diote ia guztiek (%92).

Adin talde guztietan nagusi dira euskaraz orain duela 10 urte baino gehiago hitz egiten dela uste dutenak.

c. Etorkezunerako ikuspegia:

. Gehienek (%85) uste dute hamar urte barru gaurregun baino gehiago hitzegingo dela euskaraz: "zertxobait gehiago" (%42) eta "askoz gehiago" (%43).

. Gune soziolinguistikoa zenbat eta erdaldunagoa izan are eta hedatuagoa dago uste hori.

. Euskaraz gehiago hitzegingo dela uste dutenak %80tik gora dira adin talde guztietan, oro har, gazteen emaitzak zaharrenak baino altuagoak direlarik.

II.2. Euskarari buruzko interes eta jarrera

Euskararekiko interesa eta jarrera ez dira gauza bera: esate baterako, gerta daiteke oso interes handia izanik euskararen aurkako jarrera izatea edota oso interes txikia izan euskararen aldeko jarrera izatea.

Jarreraren araberako sailkapena prestatzeko inkestan alor desberdinetan euskararen erabilera sustatzeari buruz egindako galderen emaitzak hartu dira kontuan.

Interesa nahiz jarrera, bakoitza bere aldetik hartuta, hauek dira emaitza nagusiak:

.Antzeko proportziotan banatzen dira euskararekiko interesatuak (%44) eta interesik ez dutenak (%40).

.Euskaldunen eta erdaldunen artean diferentziak oso nabarmenak dira: euskaldunek (%84) interes handia edo nahikoa duten bitartean erdaldunik gehienei (%52) euskara ez zaie interesatzen.

.Batazbestean biztanleria osoaren erdiak (%50) oso aldeko edo aldeko jarrera du; herenak (%34) ez du ez aldeko ez aurkako jarrerarik eta oso aurkako edo aurkako jarrera du %16ak.

.Euskaldunen eta erdaldunen artean diferentziak nabarmenak dira: euskaldunak (%89) euskararen (oso) aldekoak diren bitartean erdaldunengan parean daude euskara sustatzearen ez alde ez aurka daudenak (%42) eta alde daudenak (%38).

Interesa eta jarrerak batera hartu eta gurutzatuz zazpi kategoriako honako beste tipologia hau lortu da:

- euskara sustatzearen oso aldeko jarrera eta interes handia dutenak
- aldeko jarrera eta nahikoa interesa dutenak
- aldeko jarrera eta interes txikia dutenak
- ez alde ez aurkako jarrera eta nahikoa interesa dutenak
- ez alde ez aurkako jarrera eta interes txikia dutenak
- aurkako jarrera eta interes txikia dutenak

- oso aurkako jarrera eta interes txikia dutenak.

Tipologia berri honen arabera honela sailkatzen da EAEko biztanleria zazpi taldeetan:

Jarraian aztertuko dira tipologia berri honen emaitza nagusiak ikuspegi desberdinetatik:

.Adinaren ikuspegitik bistakoa da geroz eta gehiago direla euskararekiko interes handia ezezik euskararen aldeko jarrera dutenak. Gazteenen artean aurkako jarrerak gutxitu edota desagertu dira.

.Geografiaren ikuspegitik alde handiak daude herrialde batetik bestera: esate Araba eta Gipuzkoa bi muturretan dauden arren ezin pentsa daiteke Araban guztiak euskararen aurka eta Gipuzkoan alde daudenik, ezta gutxiagorik ere: euskara sustatzearen alde ageri dira gipuzkoarren % 57a, bizkaitarren %47a eta arabarren %41a. Egia da, hori bai, euskara sustatzearen aurkakoak dexentez gehiago direla Araban Bizkaian edo Gipuzkoan baino.

Dena den, zona soziolinguistikoaren arabera, gune soziolinguistikorik euskaldunenetik hasita erdaldunenera jo ahala, euskararekiko interesa geroz eta txikiagoa da eta euskara sustatzearen kontrako jarrera geroz eta handiagoa. Euskaldunen portzentaia %45etik gorakoa den herrietan euskara sustatzearen aldeko jarrerak guztiz nagusi diren bitartean euskaldunen portzentaia hortik beherakoa denetan nahikoa parean ageri dira euskara sustatzearen aldeko eta ez alde ez aurkako jarrerak.

.Euskaldunak dira euskararekiko interesatuenak eta euskara sustatzearekiko jarrerarik aldekoena dutenak; elebidun hartzaileen gehiengoak (%60) ere euskara sustatzearen alde dagoela dio. Ez da horrelakorik gertatzen, ordea, erdaldun elebakarengan; hauen artean aldeko jarrera dutenak %35a diren arren nagusi (%43) bait dira ez alde ez aurka daudenak, aurka dauden portzentaia %23koa delarik.

.Jatorriz bertakoak direnei etorkinei baino askoz ere gehiago interesatzen zaie euskara; euskararen erabilera sustatzeari dagokionean bertakoen gehiengoak aldeko jarrera du baina ez da horrelakorik gertatzen etorkinen artean horiengan nagusi bait dira euskararen ez alde ez aurka daudenak. Aurkako jarrera dutenak etorkinen artean bertakoen artean baino bi aldiz gehiago dira.

II.3. Azken urteotako hizkuntza politikari buruzko iritzia.

1992ko apirilean Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Idazkari-tzako Azterketarako Lantaldeak Euskal Autonomi Elkarteko biztanleen euskararekiko iritzi eta jarrerai buruz egindako ikerketan¹, besteak beste, ondoko atalak aztertu dira:

- Administrazioaren euskararekiko jokabidea.
- Euskal Herrian zein hizkuntza(ta)n hitz egin behar den.
- Euskararen erabilera sustatzeaz jendearen ustez alderdi politikoek duten iritzia.

a) Administrazioaren euskararekiko jokabidea

Hori aztertzeko hiru galdera egin ziren inkestan emaitzak galderen jarraian datozelarik:

Egin zen bigarren galdera hauxe zen:

Aurreko galdera horretan administrazioaren jokabidea "oso desegokia", "desegokia" edo "erdipurdikoa" dela erantzun zutenei hirugarren galdera bat egin zitzaion:

Laburbilduz, biztanle gehienek (%89) uste dute euskararen erabilera sustatu behar duela administrazio publikoak. Administrazioaren azken urteotako jokabidea egokia izan dela dio %39ak baina kontutan hartzekoa dela %30ak erdipurdikotzat jo duela administrazioaren jokabide hori eta %23ak desegokitzat. Azkenik, administrazioaren jokabidea erdipurdikoa edo desegokia izan dela dioten artean nagusi dira (%44) gutxi egin dela diotenak nahiz eta gauzak gaizki egin direla esan dutenak ere dexente izan (%27).

b) Euskal Herrian zein hizkuntza(ta)n hitz egin behar den

"Zure ustez Euskal Herrian zein hizkuntzatan hitz egin behar da?" honen berri izateko ondoko galdera egin zen emaitzak ondoan ageri direlarik:

Bainan inkestatuari hortaz bere iritzia eskatzeaz gain galdera horri berari buruz, bere ustez, alderdi politikoek diotena zer den jakin ahal izateko honako beste galdera ere egin zitzaion:

"Eta, zure ustez, Euskal Herrian hitz egin behar den hizkuntzari buruz zer da partidu politiko bakoitzak defendatzen duena?"

Iritzi publikoak "erdaraz bakarrik" aukeraren zale PP (%63) eta UA (%51) jotzen ditu. PSOErekiko berriz nahikoa parean daude "erdaraz bakarrik" (%47) nahiz "biak" (%40) aukerekin identifikatzen dutenak.

HB beste puntan, "euskaraz bakarrik" (%67) aukeran alegia, jartzen du gehiengoak.

Elebitasunaren aldeko jotzen dira, argi eta garbi, PNV (%75), EE (%70) eta EA (%56) bainan ohartarazi behar da biztanleen ia herenak (%30) "euskaraz bakarrik" aukerarekin lotzen duela EA.

c) Euskararen erabilera sustatzeaz; jendearen ustez alderdi politikoek duten iritzia

Inkestatuari alderdi politikoek euskararen erabilera sustatzeaz zer iritzi duten ere galdetu zitzaion:

"Ondoko partidu politikoetatik zeintzu dira euskara sustatzearen kontra ala alde daudenak?"

Iritzi publikoak PP (%50) eta UA (%44) jotzen ditu euskararen erabilera sustatzearen aurkako. PSOErekiko ez dago iritzi bat eta bakarrik: %34ak dio aurkakoa dela badio ere beste %30ak alde dagoela dio eta %26arentzat ez dago ez alde ez aurka.

Beste guztiak euskara sustatzearen aldeko direla ageri da, argi eta garbi: HB (%92), EA (%87), PNV (%86) eta EE (%77).

Oharra:

¹ Datu bilketa Euskal Autonomi Elkarteko herrialde bakoitzeko 18 urte eta gehiagoko biztanleriaren lagin errepresentagarriari egin zitzaion, martxoaren 25etik 28ra bitartean, bereziki hartarako egituraturako galdesorta banakako elkarrizketa bidez bete araziz.

Lagina honela banatu zen: 406 inkesta Araban, 504 Bizkaian eta 504 Gipuzkoan era polietapiko eta estratifikatuan aukeratu ondoren 101 abiapuntutatik hasi eta ruta aleatorioak jarraituz bakoitzean 14 inkesta egiten zirelarik. Elkarrizketak inkestatuaren etxean bertan egin ziren inkestatuak sexu, adin eta lan egoeraren kuotak jarraituz aukeratu zirelarik. Emaitzak 1991ko maiatzean Biltzar Nagusitarako Hauteskundeetan botua nori eman zion gogoan izanik ponderatu ziren.

Lagin osoaren lagin errua $\% \pm 2,7$ koa dela estimatzen da $\%95,5$ eko konfiantza mailarako eta $p=q=50$ proportzio aukeretakako.

Xabier Aizpurua

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako

Idazkaritza Nagusiko Kabinete Teknikoaren burua